

## Aroztegiaren silogismoa



**IÑAKI BARCENA**  
EKOPOL ETA  
EKOLOGISTAK  
MARTXANEKO KIDEA

**S**ilogismo baten argumentuak hiru proposizio ditu, eta horietatik azkena nahitaez ondorioztatzen da beste bietatik. Logika deduktibo horrekin aztertu daiteke, nire aburuz, Nafarroan gertatzen ari den Aroztegiako gatazka sozioekologiko luze eta traumatikoa.

Tesia: Baztango Lekaroz herri txikian (289 biztanle, 2022an) Palacio de Aros-teguia SL enpresak (Hilton multinazionalaren atala) makroproiektu urbanistiko bat egin nahi du. 228 txalet, hotel bat 129 gelarekin eta golf zelai bat. Horretarako 45 nekazaritza hektarearen birkalifikazioa lortu zuen eta obrak 2021ean, pandemia garaian, hasteko asmoa zuen. Proiektu horren alde agertu dira UPN, PSN eta Geroa Bai.

Antitesia: baztandar ugari agertu da proiektuaren aurka. Epaitegietan, Udalean, Mankomunitatean eta kalean. Pare bat erreferendumek (Lekarozen 2009an eta Baztanen 2016an) argi utzi dute bertoko herritarren borondatea eta iritzia. Baina 2021eko apirilean obrak hastear zirenean, zuhaitzen mozketak eta hondeamakinen lanak geldiarazteko desobedientzia zibila antolatu behar izan zuen Aroztegi taldeak, ehunka lagun gazteekin batera. Eta obrak bertan behera gelditu ziren.

Sintesia: merkatu askatasuna eta estatuen autoritatea desobeditzen eta

errefusatzeko direnean... errepresioa eta zigorrak dira botika arrunta. Eta ohikoa da buru batzuk bereiztea ere, kalteak erduzko moduan ordaintzeko. Enpresak 43 milioi euroko kalte-ordaina exijitzen du eta Nafarroako Auzitegi Gorenak hogeituro urteko kartzela eta 56.000 euroko isuna eskatzen ditu zazpi auzipetuentzat.

Joan den otsailaren 1ean Iruñean egon ginenok mezu sendo bat jaso genuen: “Ez dira zazpi, herri bat gara”. Eta kalean milaka lagunengaz giza-gorputz-luze horrek ez zuen duda izpirik ematen: herri baten erantzun sendoa eta zuzena, enpresarentzat eta administrazioarentzat. Aspaldiko partez, ohikoak izan dira euskaldunon erantzun kolektibo anti-errepresiboak, gure aktibisten kontrako erasoen aurrean. Horrek herri bizidun egiten gaitu.

Krisi ekosozialaren garai gogorrean bizi gara eta estatu kapitalistaren eta merkatuaren kolpeak ez dira baretuko, aldiz, bizitzaren aurkako proiektu zerrenda handitzen ari da euren agenda nekropolitikoa, azken egitasmoak armagintzan eta energia nuklearrean (Zedarriak txostena).

Euskal ekologismoaren eta beste herri mugimenduen erantzun bateratua inoiz baino beharrezkoagoa da. Aroztegi dugu adibidea. ●

## Gainbabearen desbabea



**EDU ZELAIETA ANTA**  
IRAKASLEA ETA  
IDAZLEA

**E**lkarrizketa berritu dugu fakultateko idazkaritzan, auskalagarrenez: urruti daude, euren matrikula egiteko, ikasleak bakarrik etortzen ziren garaiak. Aspaldixko aldatu zen joera, eta gurasoek –nabarmenago amek– gero eta paper aktiboagoa hartzen dute seme-alaben unibertsitateko matrikulatze prozesuan. Halaber, gero eta telefono bidezko arreta handiagoa ematen omen zaie gurasoei –amei gehiago–; eta zenbaitetan, delako informazio bat eskuratuko ez ote duten beldurrez, ikasle plantak ere egiten omen dituzte guraso batzuek telefonoaren bestaldean.

Beldurraren kultura ikertua duen Frank Furedi soziologoak galdera egin zuen duela zenbait urte: Zer gertatzen ari zaio unibertsitateari? Horri erantzuteko, unibertsitate anglo-saxoiaren infantilizazio prozesua aztertu zuen liburu batean. Nago geuk ere antzeko galderaren bat egin beharko genukeela Euskal Herrian; eta ez bakarrik fakultateetako idazkaritzetan gertatzen direnak haien testuinguruan kokatu eta ulertzeko.

Ziurgabetasun globalaren sasoian, autonomiaren kontrako eta kontrolaren aldeko jarrerak gailentzen ari direla dirudi. Eta, paradoxikoki, etengabe babesa bilatzen duen gure gizarteak desbabestu egiten du aldi berean. ●